

Nolako hiztegi batua behar du XXI. mendeko euskaldunak?

*Iñaki Azkune, Elisabete Etxeberria,
Antton Gurrutxaga, Alfontso Mujika,
Sagrario Barandiaran*

Elhuyar

Euskaltzaindiak Nazioarteko XV. Biltzar honetan parte hartzeko eskaintza egin zigunean, euskara batuaren hiztegiari buruz zerbait esan behar genuela otu zitzaigun. Baina ez Euskaltzaindiak lantzen diharduen Hiztegi Batuari buruz –maiuskulaz idazten dugun *Hiztegi Batu* horri buruz–, edo ez behintzat lan horri buruz bakarrik. Izan ere, pentsatu genuen gauden tokitik, geure eguneroko jardunetik eta eskarmentutik, abiatu behar genuela gogoeta Biltzarrean plazaratzeko.

Izan ere, Elhuyarren, une honetan, gure jardunak honetara ekarri gaituelako, euskararen estandarizazioaren dinamikaren banalerroaren erdian-edo gaudela esan dezakegu. Batetik, hiztegiak, entziklopediak, atlasak eta bestelakoak argitaratzen ditugu. Hortaz, nolabait sortzaile garen aldetik, euskararen erabiltzaileei –euskaldunei– kontsulta-obrak eta, neurri batean, erreferenteak edo ereduak, eskaintzen dizkiegunez, gure erantzukizuna eta ardua, gure nahia eta gure erabakia da Euskaltzaindiaren erabakien eramaile, zabaltzaile eta gizarteratzaile izatea, eta Euskaltzaindiak ezarritako ildotik ez aldentzen saiatzea.

Bestetik, aldizkari bat argitaratzen dugu, itzulpenak egiten ditugu, lanbide-heziketako eta unibertsitateko eskola-liburuak argitaratzen ditugu, eta hainbat enpresatan ari gara euskara-planak garatzen euskara lan-hizkuntza izan dadin. Alde horretatik, euskararen kontsumitzaileak gara, eta egunero-egunero agertzen zaizkigun lexiko-arazoei aurre egin behar izaten diegu.

Azken alde horri, alde kontsumitzaile horri, erantzun behar dio Elhuyarren alde sortzaileak. Eta errealitate horretatik –premien, nahien eta ezinen dialektika horretatik– abiatu behar plazaratu nahi dugu gure gogoeta, gure kezkek eta nahiak zuengana-tzeko. Horregatik, honela bataiatu dugu txostena: *Nolako hiztegi batua behar du XXI. mendeko euskaldunak?*

Euskaldunok euskaraz egin ahal izateko, euskarak eguneroko komunikazio-beharretarako —lagunarretarako, eskolarako, lanerako, jakintzarako, aisiarako eta abarretarako— tresna egokia izan behar du.

Euskaldunok Europako gizartearen parte gara, eta, nagusiki, zerbitzuetan eta industrian lan egiten dugu. Euskarak, euskal ondare lexikalak, gizarte horretan bizitzeko behar ditugun hitzak eman behar dizkigu. Eta, ematen ez dizkigunean, guk, euskaldunok, hitzak mailegatuz, egokituz eta sortuz, ematen dizkiogu euskarari behar dituen hitzak. Horrela eginez doa egunez egun euskal hiztegia, hiztegi hori ofiziala ez bada ere, eta batu-izaera zalantzazkoa badu ere. Euskaraz bizi nahi dugu, eta, horretarako, inguratzen gaituen eta erabiltzen dugun oro izendatzeko, hitzak behar ditugu.

Euskaltzaindiak azken urteotan hiztegi batua finkatzeari ekin dio. Lanak duela ia 10 urte hasi ziren, 1991ko abenduan Hiztegi Batuko Batzordea sortu zenean. Lehen urrats garrantzitsu horretan tradizioa, ondare lexikala, hartu da oinarritzat. Lehen urratsa amaiturik, 22.000 hitz inguru finkaturik, bigarren urratsean beste hainbeste hitz finkatu nahi ditu Euskaltzaindiak. Finkatze hori gehienbat grafiari dagokio, ez hainbeste hitz horiek dituzten adierei edo esanahiei. Hortaz, hiztegi batez ere ortografikoa lantzen ari da Euskaltzaindia. Hitzen etxaurrea –grafia– eraiki du, etxaurreaz haraindi lana badagoela jakinik ere. Nonbaitetik hasi behar zen, eta abiapuntu ona, nahitaezkoa, ezarri du Euskaltzaindiak.

Baina inon idatzirik ez dagoen 'euskal hiztegi bat' —edo bat baino gehiago— badago: euskaldunok gaur egun baliatzen duguna, komunikatzeko balio diguna. Ez da hiztegi batua izango, edo neurri batean soilik izango da batua, baina euskal hiztegia da, erreala da, funtzionala da.

Bien artean, zalantzarik ez da, leizea dago. Hori hizkuntza guztietan gertatzen bada ere, gurean inguruko erdaretan baino askoz nabarmenagoa da, besteak beste, hiztegi batu ofiziala hastapenetan dagoelako. Eta larriagoa da gurean arazoa, egungo beharretatik abiatutako hiztegi baturik ez dugulako oraindik. Plaza horretan, jokaleku horretan, jardun beharra dago.

Hiztegi Batua egiten hasteko, literatura-tradizioan oinarritu da Euskaltzaindia. Baina harago ere joan da. Izan ere, euskal ondare lexikalarekin batera, tradiziorik gabeko hainbat eta hainbat hitz ageri dira Hiztegi Batuan. Hau da, saio bat egin da, tradizioaz gainera, gaurko plazara ere jaisteko, gaurko euskaldunok ditugun beharretara hurbiltzeko. Asmo txalogarria, zalantzarik gabe, eta beharrezkoa. Hona hemen, adibidez, Hiztegi Batuak bildu dituen zientzietako hainbat hitz:

batugai, diagonal, diferentzial, diskretu, disolbatu, erdikari, erroketa, fotoi, gradiente, isologailu, kateto, kosekante, magnitude, minus, multiplo, periodo, sinu, unitate.

Hala eta guztiz ere, beharretara hurbiltze horretan ez du ematen zezenari adarretatik tinko heldu ahal izan zaionik: Hiztegi Batuaren lehen urratsean batere tradiziorik ez duten kultur hitz asko sartu dira. Gorago emandako adibideekin batera, beste hainbat mailegu ageri dira Hiztegi Batuan. Zaila da neurtzen, baina, gaur egungo euskaldunen beharrei begira jarriko bagina, ez du ematen beharren araberrako hurrenkeran ezarritako zerrenda batean oso gora ezarriko genituzkeenik, eta, gainera, mailegu garbiak diren aldetik, ez ziren arazo-iturri. Adibidez:

apostasia, anfotero, diakronia, epigrama, erradioskopioa, espektrograma, etnolinguistika, hexametro, homotezia, ideografiko, mikrokosmos, palatalizatu, pentametro, prosodia, semiologia, tautologia, teleologia, teosofia, teodizea, trakeotomia.

Hitz horiek guztiak hiztegi batura bildu izana ez dago gaitzesterik. Aitzitik, horiek denak behar ditu XXI. mendeko euskaldun eskoladunak. Baina XXI. mendeko euskaldun orok —eskoladunak nahiz eskolagabeak— horiek baino askoz gehiago, maizago, erabiltzen dituen hainbat hitz, oinarritzkoak, falta dira Hiztegi Batuan. Adibidez, automobilari begiratu eta erreparatu atalei:

bolantea (gazt. *volante* / fr. *volant*)

embragea, lozagia? (gazt. *embrague* / fr. *embrayage*)

esekidura (kalean, kaleko euskara batuan, '*suspentsioa*')

biradera (leihatila jasotzeko eta jaisteko)

abiadura-kaxa (Hegoaldean, kalean, '*kajakanbio(s)a*') (gazt. *caja de cambios* / fr. *boîte de vitesse*)

lohi-babesa (Hegoaldean, kalean, '*guardabarro(s)a*') (gazt. *guardabarros* / fr. *aile, garde-boue*)

motelgailua (Hegoaldean, kalean, '*amortiguadorea*') (gazt. *amortiguador* / fr. *amortisseur*)

kolpe-babesa, kolpe-babesgarria, babesgarria, kolpe-leungailua... (Hegoaldean, kalean, '*paratxoke(s)a*') (gazt. *parachoques* / fr. *pare-chocs*).

Automobilaren alorra bezala, oinarritzko beste alor asko dago langai: janari-edariak, sukaldaritza, jantziak, estetika eta garbitasuna, aisialdia, etxeko elementuak, altzariak eta apaingarriak, etxetresnak, eskola- eta bulego-materiala, brikolajea, etab., hau da, alor arruntak, egunerokoak, behar-beharrezkoak. Adibidez, Hiztegi Batuan ez dugu *galleta* hitza aurkituko, ezta *bonboi, ma(g)dalena, saltxitxoi, biberoi, konpresa, kapota, txaleko, lozio, permanente, errulo, kantinplora edo erantzungailu* hitzak ere; laranja-zukua eta abar egiteko aparatuari *zuku-makina* edo nola esan behar diogun, telebista eta beste aparatu batzuk urrutitik gobernatzeko tresnari *urrutiko aginte, tele-aginte, telekomando* edo nola esan behar diogun ere ez dugu aurkituko; Hegoaldeko *entxufe* edo Iparraldeko *prisa* ere ez; paperak lotzeko *grapak* eta *grapagailua* ere ez daude. Eta azken aldi honetan hainbeste hauts harrotu dituen *telefono mugikor, telefono mugigarri, telefono eramangarri, telefono zelular, sakelako telefono* edo dena delako hori, kalean, Hegoaldean, *telefono mobila* esaten zaion hori ere ez dugu aurkituko.

Ez inork pentsa gero aurreko guztia Hiztegi Batuaren kritika denik. Alderantziz, esanda dago, eta berretsi egin nahi dugu, orain dugun Hiztegi Batua tresna ezinbestekoa dela, eta oinarri sendoak ezarri dituela aurrera egin ahal izateko. Baina non gauden, zer egin den eta zer falta den argi azaldu beharra dago.

Gure ustez, hiztegi batu ofizialak, aurrera begira, arreta handiagoa jarri behar luke gaurko euskaldunen beharretan. Tradiziotik —literaturatik— datorren ondare lexikalak hiztegiaren enborra osatu behar du, zalantzarik gabe, baina beharrei ere begiratu behar zaie.

Oso kontuan hartu behar da, orain arte baino kontuanago, euskara hizkuntza bizia dela, eta, beraz, erabiltzen den hizkuntza batu behar dela, ez garai batean —literatur tradizioan— erabili zena. Horretarako, erabiltzen den hizkuntza behar da eza-gutu. Duela 10-12 urte, hiztegi batu ofiziala erabakitzeko eskumena zutenen artean zegoen iritzi aski zabala honako hau zen, modu gordinean adierazita: "azken 25 urteotan euskara batuan idatzi dena ez da kontuan hartu behar edo ez du lehentasunik izan behar hiztegi batua finkatzeko orduan, ez baita fidagarria".

Baieztapen horrek ñabardurak beharko lituzke, baina bego bere horretan. Hala ere, ez da ahantzi behar azken 25 urte horietan aurreko 400 urteetan baino askoz gehiago idatzi dela. Eta azken 10 urteotan aurreko 25 horietan baino are gehiago idatzi dela. Idatzi eta irakurri: Azken 25 urteotan makina bat hitz eta termino —ezinbestekoak eta tradizioan ez daudenak— sortu dira, eta beren bidea egin dute. Hiztegi batuak, batu modernoak, bere altzoan hartu behar ditu, iragazi eta aztertu ondoren, jakina. Zorionez, ez gaude duela 35 urteko egoeran, ezta duela 10-12 urteko egoeran ere, eta kalean dagoen euskarari, erabiltzen dugun euskarari, ezin zaio ezikusiarrena egin.

Hortaz, 'tradizioan zer dugun' galdera ahaztu gabe ere, 'eguneroko bizitzan zer behar dugun' galderari erantzun behar zaio. Euskaldunek eguneroko bizitzan behar dituzten hitzak detektatu egin behar dira, eta kontuan hartu behar da, gainera, kontzeptu horiek adierazteko 'zerbait' erabiltzen dutela jadanik euskaldunek. Eta hitz horietako askok ez dute testigantzarik izango idatzizko tradizioan.

Euskal hitza zer den eta zer ez den definituta-edo du Euskaltzaindiak 1991ko apirilaren 26ko adierazpenean (*Euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak* esana zuen lehendik, eta honako erantsi zion adierazpen hartan: *Euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak, sustraitzen ez diren bitartean bederen*. Eta hitzak sustraiak badituen ala ez igartzeko, hiru irizpide ezarri zituen: *hitzauren hedadura, hitzauren antzinasuna eta hitzauren erabilera idazle zaharretan*. Gehiago ere erantsi zuen: *ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak*).

Hala ere, plazara jaitsita, garbi dago definizio horrek ez digula beti balio, ez behintzat komunikazio-beharrei erantzungo dien hiztegia egin nahi bada. Euskaltzaindiak badaki hori, eta Hiztegi Batuan aurre egin behar izan dio arazoari. Hor daude, adibidez, *gasolina/ezantza, koaderno/kaier, betun/ziraia, kartel/afixa* edo *bizkotxo/bixkotx* bikoteak. Eta hainbatetan ausart jokatu du Euskaltzaindiak, arazoan aurrean errealitateari muzin egin gabe. Hor ditugu, adibidez, *aleazio, bonbilla, fideo, pantaila, txandal* edo *txikle* hitzak. Hemendik aurrera, horrelakoak ugaritu egingo dira, eta hitz bakar-baturik proposatzeko zailtasuna edo ezintasuna izango da, baina, gure iritziz, ezin itzurizko eta lehentasuna duen erantzukizuna da.

Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren bigaren urratsean beste 20.000 hitz finkatu nahi baditu, ez dago zalantzarik kopuru horretara iritsi ahal izateko alor espezializatuetan sartu egin beharko duela, nahiz eta Euskaltzaindiak behin baino gehiagotan esan duen terminologia teknikoan ez dela sartuko (Bide batez, esan dezagun terminologiarako erreferentzia-gune bat behar dugula, Euskal herri osokoa eta ez administrazio baten menpekoa, eta ez kolorebakarra, arauak emango ez baditu ere, nolabaiteko onarpena emango duena, eta gune edo elkarte horrek adostasuna bilatuz lan egin beharko luke, eta ez arauak ezarritz). Alor espezializatuetan sartu behar bada, modu sistematikoan lan egin behar delakoan gaude. Noizbehinkako eta banan-banako esku-hartzeak saihestu egin behar dira. Orain arte Euskaltzaindiak finkatu duen hiztegian badago horrelako arazoren bat, zorionez puntuala. Zenbaitetan, sarrerak hautatzeko irizpidea bitxia izan da: hitz batzuei sarrera eman zaie eta beste batzuei ez, kontzeptu-multzoak kontuan izan gabe. Horrek ez du ondorioz erabakietan, baina hiztegitik sarrerak hautatzeko orduan irizpide garbi egituraturik falta izan dela adierazten du.

Adibidez, hainbat elementu kimiko ageri dira Hiztegi Batuan, baina multzo osoari begiraturik, badirudi aliriztura erabaki dela zein sartu eta zein ez:

klora sarrera da, *bromoa ez*, *fluorra* bai eta *iodoa ez*. Zergatik? Elementu horiek talde bat osatzen dute —halogenoak— eta elkarrekin ikasten dira eskoletan. Era horretako adibide asko daude: *litioa* sarrera da, baina *helioa ez*; *kadmioa* bai, baina *titania* ez; *zesioa* bai eta *banadioa* ez; *zerioa* bai eta *neona* ez; eta abar.

Bestalde, *erradio* eta *radio* sarrerak ageri dira Hiztegi Batuan, alboan bat ere oharrik edo ikurrik ez dutela. Guk ez dugu zalantzarik: elementu kimikoa *radioa* eta geometriako terminoa *erradioa* esan eta idazten ditugu, baina Hiztegi Batuan ageri diren moduan ez dago jakiterik zein den zein, argibiderik ez baitago.

Sarrerak hautatzeko irizpidearen lausoa ikusten da honako adibide hauetan ere: *gimnospermo* sarrera da, baina *angiospermo* ez; *erribonukleiko* sarrera da, baina *desoxirribonukleiko* ez; *sulfuriko* sarrera da, baina *nitriko* ez.

Baina modu sistematikoan lan egin ez izanaren ondorioak horiek baino larriagoak izan daitezke. Bi akats aurkitu ditugu Hiztegi Batuan, bi termino teknikotan: *sulfidriko* eta *zianhidriko* ageri dira zerrendan. Konposatu kimikoen nomenklatura funtzionalaren atal espezifikoak hiru elementu izan ditzake: aurritzia, erroa eta atzizkia. ‘*hidriko*’ atzizkia da, eta ezin da batean hatxea kendu eta bestean jarri. Nomenklaturaren sistematikotasunak eskatzen du *sulfhidriko* idazteak, hatxea ez kentzea alegia.

Beste akatsa unitateen izenetan gertatu da. Unitate Sistema Internazionalak oinarritzko zazpi unitate ditu (*metroa*, *kilogramoa*, *segundoa*, *amperea*, *kelvina*, *mola* eta *kandela*), eta horiek dira gainerako unitate guztien jatorria. Hiztegi Batuan, hutsuketa sistematikorik egin ez eta, bost jaso dira eta bi kanpoan utzi. Baina arazoa ez dago hor. Sistema Internazionalako unitateen izenak, jatorriari begira, bitan bereizten dira: jatorrian pertsona-izena dutenak (*kelvin*, *hertz*, *newton*, *joule*, *pascal*, *watt*, *coulomb*, *ohm*, *siemens*, *henry*, *becquerel*...) eta gainerakoak (*metro*, *segundo*, *kandela*, *mol*, *radian*, *lumen*, *lux*...).

Jatorrian pertsona-izena ez duten unitateen izenak, batzuk behintzat, aldatu egiten dira hizkuntzatik hizkuntzara, baina jatorrian pertsona-izena duten unitateen izenak ez. Euskaltzaindiak *volt* eta *watt* eman ditu, baina *ampere* erabaki du, hau da, jatorrian pertsona-izena duen unitatearen izena egokitu egin du, sistema osoaren nomenklaturaren koherentzia bortxaturik (Espainian bertan, Errege Dekretu baten aginduz¹, *ampere* da forma ofizial bakarra, ez *amperio*).

ingelesez	ampere	volt	watt
gaztelaniaz	ampere (amperio)	volt (voltio)	watt (watio)
frantsesez	ampère	volt	watt
alemanez	Ampere	Volt	Watt
italieraz	ampere	volt	watt
nederlandez	ampere	volt	watt
portugesez	ampere	volt	watt
danieraz	ampere	volt	watt
suedieraz	ampere	volt	watt
norvegieraz	ampere	volt	watt

Ezin da maileguen egokitzapen sistematikoaren irizpidea ezarri, eta *-mp-* grafia *-np-* bihurtu, *temperatura*, *enpiriko*, *implizitu*, *inportazio* edo *inperio* hitz arruntetan egin den bezala. Kanpoko estatuetako herritarren izenak (baita hiriburuetakoen ere), adibidez, sail berezia osatzen dute, eta sail berezi gisa aztertu eta sartu dira Hiztegi Batuan. Hor, adibidez, *mozambiketar*, *gambiar*, *kualalumpurta*, *kampalar*, *zambiar*, etab. ageri dira, jatorrizko *-mp-* hori gordeta. SI sistemako unitateek ere sail berezia osatzen dute, eta sail gisa aztertu eta erabaki behar dira. Horrela jokatzu gero, *ampere* da grafia egokia (antzeko kasua da *coulomb* unitatearena ere. Oraingoan hori ez da Hiztegi Batuan ageri, baina, *anpere*' erabakia ikusirik, norbaitek pentsa lezake *coulomb*' behar lukeela).

Arazo horiek puntualak dira, eta, ozen esan dezagun, ez dute Hiztegi Batuaren balio ukazina iluntzen. Baina hurrengo urratsetarako prozeduretan sistematikotasuna zorrotz zaindu beharko dela erakusten dute.

Euskaldunok behar dugun hiztegi batuari, desideratum horri, asko eskatzen diogu, eta badakigu lantegi zaila dela. Izan ere, hiztegiak produktu 'ona' eskaini behar du: hor agertzen diren hitzek euskararen zerizanari eta tradizioari leialak, zorrotz aztertuak eta hizkuntzalaritzaren eta lexikografiaren ikuspegitik 'zuzenak' izan behar dute. Aldi berean, komunikaziorako tresna behar dute izan, eta horrek esan nahi du funtzionaltasun-baldintza minimo batzuk ere bete behar dituztela edo funtzional izatera iristeko ezaugarriak dituzten alde aurretik aztertzea komeni dela, aiantzi gabe jadanik funtzional diren baina Hiztegi Batuan onesten ez diren beste hitz edo termino batzuekin lehiatu beharko dutela.

Hori oso arazo korapilatsua da. Hiztegi gintzan dugun eskarmentutik esan dezakegu. Baina badakigu euskaltzainak horretaz jabeturik daudela. Horrenbestez, halako kontzeptua adierazteko erabil litezkeen hitz edo terminoen artean bat hobesterakoan hizkuntzalaritzaren irizpideen arabera okertzat eta baztergarritzat jotzen denik ez badago, hobe litzateke erabilera errealarari (edo erabilera errealean nagusi den formari) men egitea, ahalik eta distortsiorik txikiena sortzeko. Ez genuke aiantzi behar euskaraz bizi nahi duen gizartea ezin dela Euskaltzaindiak halako kontzeptuak euskaraz nola behar duen noiz erabakiko zain egon, gizarteko premiak akademia batek erabakiak har ditzakeen baino lasterrago aldatzen eta berritzen direlako. Hori esanik, ez dugu adierazi nahi sortu eta zabaldu diren hitzak besterik gabe onartu behar direnik, errealtatea hor dagoela eta merezi duen heinean aiantzat hartzekoa dela baizik. Eta, horretarako, azken urteotako testugintzaren corpus informatizatuaren premia begibistakoa da. Nola jakin, bestela, zer proposatu den azken aldi honetan hainbat itzulpen eta sortze-lanetan?

XXI. mendean gaude, eta XXI. mendeko hiztegi batua beharko dugu egin. Lan horri ekiteko, Euskaltzaindia da, gaur egun, euskaldunok onartzen dugun tresnarik egokiena. Hari laguntzea izan behar dugu helburu. Euskaltzaindiak gaurko euskaldunak entengabe izan behar ditu gogoan; eta euskara egunero-egunero sortu, erabili edota

1 Espainian, urriaren 27ko 1317/1989 Errege Dekretuak lehen eranskinean SI oinarriko unitateak definitzen ditu eta izenak ematen: *ampere* da forma ofizial bakarra.

Eta, gaztelaniari dagokionez, honela erakutsi ohi dira SI unitateen izenak: "Los nombres de las unidades debidos a nombres propios de científicos eminentes deben escribirse con idéntica ortografía que el nombre de éstos, pero con minúscula oficial". Horixe da arau (konbentzio) nagusia gaztelaniaz.

hedatzen duten agenteen lana kontuan hartu behar du, gero eta gehiago, hiztegi batu eta euskaldunok erabiliko duguna egingo badu.

Zama handiegia ezartzen ari gara, beharbada, Euskaltzaindiaren bizkarrean. Ez dakigu Euskaltzaindiak bakarrik heldu ahal izango dion gure ustez behar den hiztegi batu horri. Eginkizun horretan talde-lana indartzeko, Euskaltzaindiaren gonbita jaso genuen, eta, gure aldetik, gure ahal apalen neurrian, antolatzen diren lan-taldeetan ganoraz eta gogoz lan egiten saiatuko gara. Besterik ez. Mila esker gure ideia hauek zuen aurrean azaltzeko eman diguzuen aukeragatik.